

## ALIANTZAK

Gure produktuaren erabiltzaile talde bakoitzean sartzeko sektore horietako elkarte eta erakunde desberdinekin aliantza eta akordioak lortzen saiatuko gara.

- Langileen sindikatuak
- Mediku elkarteak
- Turismoa

Gure erabiltzaile nagusienak hirugarren sektorean aritzen dira. Gure produktuari esker berain lan baldintzak eta lanaren kalitatea handituko denez, **langileen sindikatuekin** harremanetan jarriko gara, langile horien ordezkariak baitira. Beraiei gure produktua aurkeztuz eta lan kalitatean suposatuko lukeen hobekuntza erakutsiz, izango diren langileen ordezkari bezala, gure produktua iristeko. Haien bitartez, gure ideia zeharka eta oso modu eraginkorrean sar dezakegu merkatuan.

Nahiz eta edozein zerbitzu publiko edo pribatu gure produktua erosteko erraztasuna izan, bereziki **mediku elkarteetan eta aireportuetan** zentratuko gara, hemen, beharrezkoa ikusten dugulako gure erlojuaren erabilera.

Euskal Herrian, mediku elkarteak Osakidetza aurkeztuko dio gure produktua eta honen laguntzarekin gure produktua Euskal medikuntzak duen teknologiaren atal bat izatea lortuko dugu. Haien lan baldintzak hobetoagoak izango direlako eta harroago egongo direlako eskainiko duten lanarekin. Gainera erosoago egongo dira lan egiten, bezeroekin duten harremana hobetoago izango delako.

Antzeko egoera aurki dezakegu **aireportuetan**, bertan egunean zehar hainbat hizkuntza entzuten direlako. Gailu honek erlazionatzeko aukera errazten du, eta ospitaletan bezala lan baldintzak errazten ditu.

Epe ertainera, beste erloju marka batzuekin jarriko gara kontaktuan. **Lankidetzak** **akordio** bat egingo dugu Apple-ekin, Apple Watch bat sortzeko, hainbat sistemak

batuz. Sortuko dugun erlojua askoz osatuagoa izango da. Elkartze honen bidez, biok etekinak lortuko ditugu. Diru asko gastatu nahi ez dutenentzako Casio markarekin elkartzeko intentzioa finkatu dugu ere, merkeagoa den marka. Horrela bakoitzak inbertitu nahi duen diru kopurua aukeratu ahal du.

Bi marka hauekin sistema barneratuta dituzten erlojuak merkaturatzea da helburua, baina bezeroek ere aukera izango dute erloju konkretu batean gure sistema ezartzeko, produktu marka hauek saltzen diren edozein dendetan.



**CASIO.**

Azkenik **Eroski bidaiak** harremanetan jarri gara, norbaitek bidai bat adosterakoan aukera izateko gure produktua alokatzeko, epe horretarako bakarrik.



*Anetsetan? Egizu legan!*